



***Mie Yim:
Mutanteak***

20.05.2021 - 15.07.2021

Faro pasalekua 33, 20008, Donostia-San Sebastian, Gipuzkoa, Euskadi, Espainia



Mie Yim: Mutanteak

Maiatzak 20 - Uztailak 15, 2021

Prensta Oharra

Villa Magdalenak atsegin handiz aurkezten du *Mie Yim: Mutanteak* erakusketa, New Yorken bizi den artista korearraren azken lanen aukeraketa. Azken 10-15 urteetan, aldaketa estilistiko handia izan du Mie Yim-en praktika artistikoak. Mutazio bat, bestela esanda. Asmatutako artzain guneak eta animalia antropomorfikoak definitzen zituzten artistaren margolanak, orain alde batera utzi, eta ikuspegi ez-errepresentatzailerara jo du. Bere azken lanetan, tentsio handia nabari da ezagutu daitezkeen irudien eta abstrakziotik hurbilago dauden azalera lodiko forma mutanteen artean. Pintura geruza ugariak, kalitate eraikitzailea gehitzen diote, eta horrek Yim-en teknika ia eskultorikoa sentiaraziko digu, 2018an artistak egindako azalpenean adierazten zuen bezala: "Koadroak lerro horizontal eta bertikaletatik abiatuta eraikitzen ditut aldambioak edo eskeletoak balira bezala". Kolore distiratsuak eta eduki dramatikoak bateratzea, artistaren edertasun nozioaren ezaugarri errepikakorra da –ia beti ezkutuko izu sentipenarekin lotua–. Bere irudimen pikturikoak jainko naturalak, parasitoak, landare-formak irentsi dituen pertsonaiak eta espazioan flotatzen duten konposizio bizidunak barne hartzen ditu.

Yim-en gaiak lausoak eta lainotsuak dira, bere haurtzaroko oroimen zatikatuak bezala; umetan, Koreatik Estatu Batuetara presaka egin behar izan zuen migrazioaren ondorio. Hazten ari diren organismoak margotzen ditu, fluxu egoeran dauden entitate biomorfikoak. Mutante dei dakieke. *Hematoma* izeneko margolanean, giza eta estralurtar ezaugarriak konbinatzen dituen masa gorri batek, koadroaren lehen plano eta zatirik handiena betetzen du. Modu moldagarrian eta mugagabean dagoen izakia, aurrean duen guztia xurgatzeko prest dagoena. Presentzia mehatxagarri honek Philip Guston edo Peter Saulen keinu eta forma figuratiboak gogorarazten ditu.

Azken lan honek munstro mikroskopikoekin lotutako iruditeria aztertzen duen bitartean, ikusgai dauden beste koadro batzuek beste gai batzuk jorratzen dituzte. *Lotus*, gorputz adarrez eta tubular formez inguratutako aurpegi desitxuratu bat duen margo gihartsu arrosa, txikitari Koreako tenplu budistetan ikusitako loto lanparetan inspiratuta dago. *SPQR*, Antzinako Erromari buruzko erreferentzia bat da, eta zibilizazioaren kolapsoa iradokitzen du, garai honetan Coviden pandemiak eragindako aldaketa sozial drastikoekin paralelismo interesgarria duen gaia.

Marrazkiak Yim-en sentsibilitatearen osagai funtsezkoak dira. Paper gainean egindako lanak dira bere margolan gehien jatorria. Erakusketan ikusgai dauden marrazkiek artista beraren narratiba mitologikoa eta bere mundu espiritual idiosinkrasiakoa erakusten dituzte. Lan hauetan, jainkoak, gizakiak eta natura ehun estetiko berean urtzen dira. Bere ikusmintzaira Koreako xamanismoarekin elkarriketan dago, erlijio premoderno batean, non mundu naturaleko objektu eta ezaugarri bakoitzak espiritu bat duen. Erlijio hori azkar desagertzen ari da gaur egungo gizartean, baina antzinako praktika horren eragina artistaren subkontzientean agertzen da. Marrazki hauetako batzuek erretratuak dirudite, beste batzuk abstrakzio esekiak dira, animalia deseraikiak, anatomia berrantolatuak dituzten izaki zerutiarrak. Obra horien barietateak amaigabeak dirudite; hala ere, guztiak daude ezinbestean lotuta eta leku beretik datoz.

Mie Yim-en bakarkako azken erakusketa, *Psychotropic Dance (dantza psikotropikoa)*, Olympia galeria berrian izan zen, New Yorkeko Lower East Side auzoan. Villa Magdalenako *Mutanteak* erakusketa, artistak Espainian egingo duen bakarkako lehena izango da, eta bere lana hamarkada batean AEBetatik kanpo erakutsiko den lehen aldia ere bada.

Astelehenetik igandera, aldez aurretik hitzordua eskatuta.

Informazio gehiago: info@villamagdalenas33.com , +19173556437, +34 659 867 034

Mie Yim: Mutanteak

Maiatzak 20 - Uztailak 15, 2021



Mie Yim
Chrysalis
2020
Mihise gaineko olio-pintura
213 x 168 cm



Mie Yim
Hematoma
2021
Mihise gaineko olio-pintura
183 x 152 cm



Mie Yim
Lotus
2020
Mihise gaineko olio-pintura
208 x 168 cm



Mie Yim
SPQR
 2020
 Mihise gaineko olio-pintura
 178 x 152 cm



Mie Yim
Anaconda
 2021
 Mihise gaineko olio-pintura
 183 x 152 cm



Mie Yim
#123
 2021
 Pastela shizen paper gainean
 28 x 22 cm



Mie Yim
#139
 2021
 Pastela shizen paper gainean
 28 x 22 cm



Mie Yim
#105
2020
Pastela shizen paper gaineau
28 x 22 cm



Mie Yim
#133
2021
Pastela shizen paper gaineau
28 x 22 cm
(11 x 8.5 inches)



Mie Yim
#63
2020
Pastela shizen paper gaineau
28 x 22 cm



Mie Yim
#147
2021
Pastela shizen paper gaineau
28 x 22 cm



Mie Yim
#122
2021
Pastela shizen paper gainean
28 x 22 cm



Mie Yim
#34
2020
Pastela shizen paper gainean
28 x 22 cm



Mie Yim
#131
2021
Pastela shizen paper gainean
28 x 22 cm




Mie Yim
#85
2020
Pastela shizen paper gainean
28 x 22 cm



Mie Yim
 #78
 2021
 Pastela shizen paper gainean
 28 x 22 cm




Mie Yim
 #118
 2021
 Pastela shizen paper gainean
 28 x 22 cm




Instalazioaren ikuspegia: *Mie Yim: Mutanteak*. Villa Magdalena, Donostia-San Sebastián. Argazkilaria Idoia Unzurrunzaga



Instalazioaren ikuspegia: *Mie Yim: Mutanteak*. Villa Magdalena, Donostia-San Sebastián. Argazkilaria Idoia Unzurrunzaga



Instalazioaren ikuspegia: *Mie Yim: Mutanteak*. Villa Magdalena, Donostia-San Sebastián. Argazkilaria Idoia Unzurrunzaga




Instalazioaren ikuspegia: *Mie Yim: Mutanteak*. Villa Magdalena, Donostia-San Sebastián.
Argazkilaria Idoia Unzurrunzaga




Instalazioaren ikuspegia: *Mie Yim: Mutanteak*. Villa Magdalena, Donostia-San Sebastián.
Argazkilaria Idoia Unzurrunzaga



Instalazioaren ikuspegia: *Mie Yim: Mutanteak*. Villa Magdalena, Donostia-San Sebastián. Argazkilaria Idoia Unzurrunzaga



Instalazioaren ikuspegia: *Mie Yim: Mutanteak*. Villa Magdalena, Donostia-San Sebastián. Argazkilaria Idoia Unzurrunzaga



Instalazioaren ikuspegia: *Mie Yim: Mutanteak*. Villa Magdalena, Donostia-San Sebastián. Argazkilaria Idoia Unzurrunzaga